

## Fagor Industrial % 20 hazi zen Asiako merkatuan 2017an

- Oñatiko konpainiak, Asian negozioa garatzearen alde apustu eginez, Singapurreko Food&Hotel azokan hartu du parte.
- 125 m<sup>2</sup> baino gehiagoko standean garbitegiatarako, ostalaritzako eta sukaldaritzarako gailuak erakutsiko ditu gehienbat.

Madriren, 2018ko apirilaren 19(e)an – Food&Hotel Asia 2018ko azokan, bigarren urtez, ostalaritzako, talde handientzako sukaldaritzarako eta garbitegiatarako ekipamenduak fabrikatzen liderra den Fagor Industrial-ek hartuko du parte.

2017an, % 20 hasi zen Asiako merkatuan, eta haren aldeko apustu garbia eginez, Oñatiko konpainiak 126 m<sup>2</sup>-ko stand bat edukiko du Fagor Industrial-en ekipamenduetako azken berrikuntzak erakusteko.

Singapurrek bi urtean behin antolatzen du HoReCa (garbitegiak, ostalaritza eta jatetxeak) sektoreko munduko fabrikatzaile nagusientzako Food&Hotel Asia (FHA) azoka. Apirilaren 24 eta 27 bitartean izango da aurtengo azoka, eta berritasunak aurkezteko eta negozioa Asia-Pazifikoan posizionatzeko aukera izango dute bertan sektoreko konpainiek.

FHA mundu mailan da ospetsua, mundu osoko hotel-kate handiak hartzen baititu. Hotelen sektoreak presentzia handia du Asiako merkatuan; kate garrantzitsuenetako hotelak aurki ditzakegu hartan. Asiako merkaturak zabala da, eta Fagor Industrialen filosofiarekin bat datorren negozioen ikuspegi bat du, Asia-Pazifikoan ohiko proiektuetako enpresa liderretako bat baita.

Fagor Industrialek FHAn izango duen stand bi zatitan egongo da bereizita: garbitegia, eta ostalaritza eta jatetxeen sektorea. Aurten, lehenengo aldiz, ikuskaritza-sektoreak ostalaritza eta jatetxeen sektorea gaindituko du, iaz Asiako merkatuan lortutako salmenten ondorioz. Are zehatzago, garbitegien sektorean, kaleko garbigailuei zuzendutako ekipamendua erakutsiko da: batetik, autozerbitzuko makineriak, eta, bestetik hoteletarako, ospitaleetarako edo egoitzetarako instalazioei zuzendutakoak. Ostalaritza eta jatetxeetarako ekipamenduei dagokienez, **Fagor Industrial** haien diseinuari lotutako onuretan oinarritu da. Hori dela eta, standean nagusi izango da **KORE gamako 900 esekitako sukalde handia**. Haren edertasuna nabarmenduko du funtzionaltasunaren gainetik.

Bestetik, ontzien garbiketari dagokionez, Oñatiko konpainiak **arrasteko ontzi-garbigailuen Concept lerro berria** aurkeztuko du. Haren **ur beroko ECO sorgailuari esker**, erabiltzaileak % 60 arte aurreztuko du argindarraren fakturan. Gainera, bezeroari Fagor Industrialen ekipamenduaren 360 graduko ikuspegia erakusteko asmoarekin, standean **labeak eta hotz komertzialeko Globe lineako hainbat ekipa ere** ikusi ahal izango dira.



ONNERA GROUP



*“Asiako merkatua, zalantzarik gabe, Fagor Industrialen garrantzitsuenetako bat da, eta FHAn parte hartzeak Asia-Pazifikoaren aldeko apustua berresten du, eta baita konpainiaren nazioartekotzearen aldekoa ere”* dio Diego Micolek, Fagor Industrial-en Asia-Pazifikoko salmentazuzendariak.

### **Fagor Industrial-i buruz**

Fagor Industrial, Mondragon taldeko kooperatiba, ostalaritza, talde handientzako sukaldaritza eta garbigailuen sektoreko ekipamenduen fabrikatzaile liderra bat da. 60 urte baino gehiagoko ibilbide honetan, eta ostalaritzako profesionalen egunerokotasuna eta beharrak ezagututa, Fagor Industrialek produktuen sorta osoa eskaintzen du marka berarekin. Fagor Industrial ONNERA Group nazioarteko enpresa taldeko kide da, mundu osoan 8 fabrika eta 2000 langiletik gora dituen.

**Informazio gehiago jasotzeko edo elkarrizketak hitzartzeko, jarri harremanetan pertsona hauekin:**

**LEWIS**

Marina Obrero / Nuria Mañá  
FagorSpain@teamlewis.com  
917 701 516



**ONNERA** GROUP



Together we evolve

[www.fagorindustrial.com](http://www.fagorindustrial.com)